



Gaia: 4/2017

EBAZPENA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ENPLEGATU PUBLIKO BATEK EGINDAKO KONTSULTA ANONIMOA, BERE ESKUMENEO ESPEDIENTE ADMINISTRATIBO BATEAN DAGOEN DOKUMENTAZIO JAKIN BAT LAN ETA GIZARTE SEGURANTZARAKO IKUSKARITZARA BIDALTZEARI BURUZKOA.

I.- KONTSULTA

1.- Foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordeari 2017ko azaroaren 8an bidalitako posta elektronikoko baten bidez, interesdunak, Gipuzkoako Foru Aldundiko enplegatu publikoa bera, eskatzen du Batzordeak esku hartzea, hartara haren iritzia jasotzeko gai jakin baten inguruan: ea bere eskumeneko administrazio espediente batean dagoen dokumentazio jakin bat bidaltzerik badaukan edo bidali behar duen Lan eta Gizarte Segurantzarako Ikuskaritzara.

2.- Posta elektronikokoan, eskatzaileak azaltzen du espedientea honi buruzkoa dela: (...).

Legediak agintzen duenez, batetik, (...)k bost urtean behin (...) prestakuntza ikastaro bat egin behar dute, (...) batean, hartara (...)ri buruzko zenbait gaitan eguneratzeko; eta, bestetik, prestakuntza jarraituarekin jarraitu ahal izateko, izangaiek beren ohiko egoitza Estatuan izan behar dute edo Estatuan lan egin behar dute.

Ekarri den kasu honetan, hau da bi izangaiek, prestakuntza eskaintzen duen (...)ren bidez, ekarritako dokumentazioa: NIE bat, kreditatzen ez duena ohiko egoitzaren baldintza. Hori argitzeko eskaera egin ondoren, (...) dokumentu arruntak ekarri dituzte, kreditatzen ez dutenak besteren kontuko lanik edo lan autonomorik Espainian.

3.- Horiek horrela, interesdunak Batzordearen iritzia jakin nahi du honen gainean: ea bere eskumeneko administrazio espedientean agertzen den dokumentazioa Lan eta Gizarte Segurantzarako Ikuskaritzari bidali behar ote dien, irregulartasunak detektatu baitira, zeinak berekin susmoa baitakarte ez ote diren autonomo faltsuak, merkatuan lehia ez leialean aritzen direnak.



4.- Interesdunak bere egin du Gipuzkoako foru enplegu publikoaren Kode Etikoaren eta Kudeaketa Onaren 9.5 artikulua aurreikusten duen anonimaturako eskubidea.

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluak Gipuzkoako Foru Aldundiko eta bere sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema onartu zuen 2016ko martxoaren 1ean, etika publikoa eta eredugarritasuna bermatzeko eta horiek ezaugarri bilakatzeko xedez.

Sistema horren markoan, 2017ko azaroaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako foru enplegu publikoaren Kode Etikoa eta Kudeaketa Ona onartu zen (aurrerantzean Kode Etikoa), zeinak ezartzen baititu foru enplegatu batek bere zereginekin zerikusia duten jarduera profesional guztietan begiratu behar dituen balio etikoa eta jarrera arauak, kudeaketa onaren printzipioak eta jarduera profesionalaren arauak.

Kode Etikoak zehazten du zer izango den Erakunde Etikaren Batzordea, martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuz onartua: berme goreneko organoa eta aplikazioari buruzko gaiak erabakiko dituena.

Kode Etikoarekin zerikusia duten gaiak ebazteko, langileen ordezkari bategarriak izendatutako pertsona batek parte hartuko du Batzordean.

3.- Foru dekretu horri jarraikiz, Batzordeari dagokio tramitatzea eta ebaztea jasotzen diren kexa eta salaketa guztiak, Erakunde Osotasunaren Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balio, printzipio eta jarrera araei dagokienez.

4.- Eskatzaileari, Gipuzkoako Foru Aldundiaren enplegatu publikoa izanik, Kode Etikoa aplikatzen zaio, xedea ezartzen duen Kode Etikoaren 1.1 artikuluari jarraikiz.



III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1.- Planteatu den gaia da Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzu batean sortu den susmo bat. Izan ere, balizko iruzur bat detektatu dute lan jarduera baten inguruan eta, ondorioz, galdetzen da Lan eta Gizarte Segurantzarako Ikuskaritzari haren berri eman behar ote zaion, ikertu dezan.

Interesdunak susmo hori izan du bere zerbitzuaren eskumeneko ohiko tramite bat egitean, (...) eskuratu nahi duten bi izangaik, aurkeztu duten dokumentazioa osatzeko eskaera egin zaielarik, ez baitute egiaztatu egoitza Espainian dutenik edo Espainian lan egiten dutenik.

Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion administrazio tramiteari dagokionez, interesdunak dio ez dituela zalantzarik (...) ematearen inguruan; izan ere, izangaiek ez dute egiaztatu ohiko egoitza Espainian dutenik edo Espainian lan egiten dutenik eta, ondorioz, ez dituzte betetzen (...) eskuratzeko baldintzak.

Alabaina, interesdunak zalantza etikoak ditu; izan ere, lan iruzur balizko bat detektatu duelakoan, zalantza du espedienteko dokumentazioa Lan eta Gizarte Segurantzarako Ikuskaritzara bidali behar ote dion, hartara iker dezan, edo eragiten ote dion datuen konfidentzialtasun eta babesak espedientean biltzen den informazioari.

2 - Oro har, ezin dira nahasi Zuzenbidea eta etika. Funtzionarioen lehen betekizun ezinbestekoa da Zuzenbideari jarraikiz jardutea. Kasu honetan, hori ez da bakarrik aplikatzen (...) eman edo ez eman (gai hori ebatzi du interesdunak berak), baizik eta aztertu behar da funtzionarioek zer betekizun duten, ezagutzen dituzten legez kanpoko egoerak edo egoera irregularrak salatzen.

Zentzu horretan, aipatu behar da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateratuak, urriaren 30ean 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak, III. Tituluko IV. Kapituluak, enplegatu publikoaren betekizunak zehazten dituela. 52. artikuluan hau xedatzen du:



52. artikulua. Enplegatu publikoen eginbeharrak. Jokabide-kodea.

Enplegatu publikoek arretaz bete beharko dituzte eman zaizkien zereginak eta interes orokorrak zaindu, betiere, Konstituzioari eta gainerako antolamendu juridikoari begiratuta eta haiei lotuta; printzipio hauek oinarri hartuta jardun beharko dute beti: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, isilpekotasuna, zerbitzu publikorako dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kultura-ingurunearen eta ingurumenaren sustapena, eta emakume eta gizonen arteko berdintasunarekiko errespetua; horiexek dira enplegatu publikoen jokabide-kodearen abiaburu, ondorengo artikuluetan erregulatuko diren printzipio etikoak eta jokabide-printzipioak oinarri izanik.

Beraz, ezartzen dira interes orokorrak zaintzeko eginbeharra eta ordenamendu juridikoa bete beharra; eta eginbehar hori dagoenez, ezerk ez du oztopatzen betetzen ez den susmoa azalaraztea.

Bestalde, beste Administrazio publiko batzuekin kolaboratu beharrari dagokionez, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, sektore publikoaren araubide juridikoarenak, 3.1 artikuluan, k) apartatuan, berariaz dio:

3. artikulua. Printzipio orokorrak.

1. Administrazio publikoek objektibotasunez egiten dute lan interes orokorraren alde. Halaber, efikazia, hierarkia, deszentralizazio, deskontzentrazio eta koordinazioaren printzipioei begira dihardute, erabat errespetatuta Konstituzioa, legeak eta zuzenbidea.

Beren jarduketan eta harremanetan honako printzipio hauek zaindu beharko dituzte:

(...)

k) Administrazio publikoen arteko lankidetzak, elkarlana eta koordinazioa.

Kasu honetan, ezartzen da kooperazioak eta lankidetzak administrazio publikoen arteko jarduerak zuzentzen dituztela beraien arteko harremanei dagokienez, ulertuta zerbitzu publikoa gizarteari emana dagoela eta behartzen duela zerbitzari publiko guztiek lankidetzak bat izatera, hartara prestazio publiko hobea eta eraginkorra bat lortzeko.

Eta zehatzagoa da oraindik uztailaren 21eko 23/2015 Legeak, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailak Sistema arautzen duenak, 16. artikuluan dioena:



16. artikulua. Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzari laguntza eta lankidetzaren ematea.

1. Agintariak –edozein delarik haien izaera–, Estatuaren Administrazio Orokorreko, autonomia-erkidegoetako administrazioetako eta toki-erakundeetako organoetako titularrek, erakunde autonomoek eta enpresa-erakunde publikoek, ganbera eta korporazioek, kolegio eta erakunde profesionalek, gainerako erakunde publikoek, eta oro har, beren funtzio publikoak gauzatzen dituzten guztiak nahitaez eman beharko dizkiote, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzari, beren eskumenen esparruan garrantzia duten datuak, txostenak eta aurrekariak; era berean, ikuskapen-funtzioa betetzeko eskatzen zaien lankidetzaren eskaini beharko dute.

3.- Lan eta Gizarte Segurantzarako Ikuskaritzaren esku hartzea zehaztea baino, gure lana da zehaztea zein diren Kode Etikoan zehazten diren eskakizun etikoak, planteatzen zaigun kasu honetan.

Beharrezkoa da gogoraraztea zen diren Kode Etikoaren natura, xedea eta bokazioa. Oro har, esan daiteke enplegatu publikoaren irudia sendotzea eta indartzea dela, zerbitzuak ematen dituen eta bere jardura profesionala interes orokorraren mesedetan beti egiten duen langilea den aldetik. Beraz, kontua da enplegatu publikoaren konpromiso profesionala eta zerbitzuak emateko bokazioa balioestea eta ikusgarri egitea.

Foru Administrazioaren enplegatu publikoaren jardura profesionala gidatu eta bideratu behar duen oinarriko balioetako bat, Kode Etikoaren 2.2. puntuak dioen bezala, eredugarritasuna da.

2.2.- Eredugarritasuna

Foru langile publikoaren jardura profesionalak Foru Administrazioaren zein lurraldearen irudian ere eragina du. Ondorioz, bere jokabide profesionalak jokabide eredugarria izango du gidaritzat, langile publikoaren praktika onek gizartearen kulturaren eta arauen gizarte barneratzearen aldaketa errazten duten heinean. Foru Aldundiaren irudi instituzionala kaltetzen duen edo erakundeak ordezkatzeko duen entzute publikoa edo kapital soziala narriatzen duen eredugarritasun falta oro gaitzetsi beharko da eta Kode honetan ezarritakoaren arabera zuzendu.

Eredugarritasun horrek, jarrera eredugarri batek, enplegatu publikoaren jardura zuzentzen du lanetik harago, Kode Etikoan bertan esaten den bezala "erakunde publikoaren eta, batez ere, horietan herritarrekiko zerbitzu publiko funtzioa burutzen duten pertsonen eredu hori gipuzkoar erakundeetan eta haren zerbitzari publikoetan konfiantza



publikoa indartzeko balore handiko ukaezina da". Horregatik, hain zuzen, Kode Etikoa abiaraztearen helburuetako bat da "Foru enplegu publikoan azpiegitura etikoa eraikitzea, zerbitzuaren konpromiso profesionala eta bokazioa islatzen duena, baita foru enplegu publikoaren eredugarritasuna ere".

Iruzurraren eta ekonomia ezkutuaren aurkako borrokaren ondorioek mesede egiten diote Gipuzkoako gizarteari, lurraldearen interes orokorrari, aurrera eginez ekonomiaren sendotzeko bidean lurralde orekatu gisa.

Ez da erraza zehaztea funtzionario bati eskatu behar zaion diligenza enplegatu publiko den aldetik. Baina ezin dugu ahaztu, orobat, behartuta egonik denok (nahiz modu anonimoan izan) eskumeneko organoei jakinaraztera delitua izan daitekeen edozein jarduera susmagarri, ez gaituela ezerk eragozten, herritar gisa, hori betetzea.

Alabaina, ez da ahaztu behar ezen, zerbitzari publiko izaera berezian, eta Kode Etikoaren 2.4) artikuluekin bat inpartzialtasunari dagokionez "*...alde batetik, enplegatu publikoaren jarduera babestu eta bermatzen du...*", babestua izan behar duela bere zeregin publikoak libreki gauzatzeko.



Hori guztia aintzat hartuta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez ematen du hurrengo

EBAZPENA:

Lehena.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren Erakunde Osotasunaren Sistemari jarraikiz, erakunde arteko lankidetzak eta Lan Ikuskaritzari lehia ez leialean garatzen den balizko jarduera bati buruzko susmo bat jakinarazteak ez du urratzen Gipuzkoako foru enplegu publikoaren Kode Etikoa eta Kudeaketa Ona.

Bigarrena.- Zerbitzari publiko den aldetik bere zereginen betetze librea babesteko, gomendatzen dugu egitateak hierarkiako bere nagusiari jakinaraztea.

Donostia, 2017ko abenduaren 20a

Erakundearen Etika Batzordeko lehendakaria

Imanol Lasa Zeberio